

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	EKIPO ETA LERRO AUTOMATIZATUAK MARTXAN JARTZEA	Iraupena	60
		Baldintzatua	
Kodea	UF0634		
Lanbide-arloa	Instalazioa eta mantentze-lanak		
Lanbide-eremua	Makineria eta ekipo industrialak.		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Makineria, tresneria industrial eta ekoizpen-lerro automatizatuaren muntaketaren plangintza, kudeaketa, mantentze-lanak eta ikuskapena egitea	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Makineria, tresneria industrial eta ekoizpen-lerro automatizatuak martxan jartzea	Iraupena	140
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Funtzionaltasun- eta segurtasun-probak ekipo eta lerro automatizatuetan	Iraupena	80

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1285_3 MAKINERIA, TRESNERIA INDUSTRIAL ETA EKOIZPEN-LERRO AUTOMATIZATUEN INSTALAZIOEN PROBAK KONTROLATZEA ETA MARTXAN JARTZEA gaitasun-ataleko LB2 lanbide-burutzapenarekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Ekoizpen-lerro automatizatuak martxan jartzea, ezarritako funtzionamendu-kondizioak betetzen direla ziurtatuz.

EI2.1 Instalazio automatizatu tipo bat martxan jartzeko prozesua deskribatzea.

EI2.2 Behar bezala muntatua eta dokumentatua dagoen ekoizpen automatizatuko instalazio bat abiapuntu hartuta, eta ezaugarriak ondo zehaztuta dauzkala:

- Funtzionamendua erregulatzeko eta kontrolatzeko elementuak doitzea, ezarritako edo kasu bakoitzerako zehaztutako prozedurei jarraikiz.
- Instalazioa martxan jartzea, ezarritako edo kasu bakoitzerako zehaztutako prozedurei jarraikiz.
- Instalazioaren parametroak berriz doitzea instalazioa martxan jarri ondoren, aurrez ezarritakoekin bat ez badatoz.
- Instalazioa martxan jartzeko txostena egitea, ezarritako informazioa jasoz behar den zorrotasunaz eta formatu normalizatuan.

Edukiak

1. Lerro automatizatuak instalazioen doikuntza

- Prozesuari buruzko dokumentazio teknikoa.
- Sistema mekanikoen doikuntza.
- Sistema pneumatikoen doikuntza.
- Sistema hidraulikoen doikuntza.
- Sistema elektrikoen doikuntza.
- Besteak beste, kontrol logikoko programen (PLC) doikuntza.
- Sistema elektronikoen doikuntza.
- Erregulazio- eta kontrol-ekipoen doikuntza.
- Elikadura-fluidoen (airea, ura, olio, eta abar) emariak eta presioak.

2. Lerro automatizatuak martxan jartzea

- Prozesuari buruzko dokumentazio teknikoa.
- Abiarazteko eta gelditzeko jarraibideak.
- Instalazioen erabilera- eta funtzionamendu-jarraibideak.
- Parametroak berriz doitzeko prozesua, instalazioa abiarazi ondoren.
- Instalazioetan mantentze-lanak egiteko jarraibideak.
- Instalazioen kontrol-, segurtasun- eta alerta-jarraibideak.
- Energia aurrezteko eta ingurumena babesteko.
- Suteen kontrako neurriak.
- Instalazioa martxan jartzeko txostenak prestatzea.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta lanbide-eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0633 Funtzionaltasun- eta segurtasun-probak ekipo eta lerro automatizatuetan.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Makineria, tresneria industrial eta ekoizpen-lerro automatizatuen muntaketaren plangintza, kudeaketa, mantentze-lanak eta ikuskapena egitea